

Suomieraren normalkuntza aztertu du Txillardegik 'Bat' aldizkariaren ale berrian

Hizkuntza horren aldeko hainbat urrats eredugarritzat ditu ikertzaile donostiarrak

Erredakzioa / Donostia

Uztailean atera zen argitarata *Bat* soziolinguistika aldizkariaren ale berria. 30. zenbakia da, eta honako hau du gai nagusia: suomieraren normalkuntza. Gai horren atariko artikulua Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* idatzi du. Artikuluan, suomiera galbidean egotetik hizkuntza nagusi izatera nola pasa den azaldu du.

FINLANDIAN bi hizkuntza ofizial daude, suomiera eta suediera. Bi hizkuntzen arteko harremanak iragan mendetik hona izan duen bilakera eredugarritzat du Txillardegik. «Alde asko eta askotatik, adibide harrigarri eta argi emalea Suomirena», dio ikertzaile donostiarrak, eta hitz horiekin argudiatu du argitaratu berri duen artikulua garrantzia.


Izan ere, iragan gizaldia arte Finlandian —*Suomi* deritzo berak— suomieraz mintzo ziren biztanleak nagusi baziren ere, suediera hizkuntza dotorea zela dio, boterearen mintzaira. «Metropoliaren hizkuntza izan da Suomen suediera, luzaz; eta bertako klase nagusiaren hizkuntza ere

bai». Hori, iragan mendean hondarrean artean oso nabarmena zela dio. «Ekonomiaren alorrean, politikarenean, administrazioarenean, kulturenean, XIX. mende bukaeran suediarrek agintea zutela

ikusirik behar da». Eredugarri deritzo, ordea, suomiar abertzaleek ordutik gaurdaino egin duten bideari.

Bilakaera historikoa, suomieraren alde

Hamarkada hauetan guztietan suomiera geroz eta indartsuago bihurtu da. Horretan, esaterako, deigarri deritzo Txillardegik abertzale suomieradunek unibertsitate berezkoa —ez suedieraz mintzo zen unibertsitatearen adar bat— eratzeko izan zuten ausardia, bai eta pren-



MARTTI KAINULAINEN / AP

Finlandian, hauteskunde batzuen ostean, botu zenbaketa. Jarduera ofizial orotan ondo zehazturiko elebitasun sistema dute herrialde horretan.

tsak izan duen garrantzia ere. «Prensa suomieraren zerbitzutan ari da ehunka egunkari eta aldizkariaren bitartez. Areago gogorazten du honek Kataluñako egoera Euskal Herriarena baino. Hemen indar abertzaleak nagusi omen dauden honetan, prentsa espainola eta frantseza dira erabat nagusi», dio ikertzaile donostiarrak bere artikuluan, suomieraren eta euskararen bilakera alderatuz.

Halaber, aipamen egin die suomieradunek hitz berriak sortzeko erabili dituzten moduei ere. Halakoetan suediar hizkuntzaren gerizpetik at jarduten jakin dutela dio Txillardegik.



Bat aldizkariaren ale berria.

illardegik bere ikerlanean, eta eredugarritzat ditu horretan izan dituzten irizpide nagusiak ere. «Suedieratik urrun-

duz, atzizkien bidea bultzatu zuten hiztegitan. Hemen guk askotan egin ez duguna», azaltzen du Txillardegik, berriro ere suomieraren eta euskararen bilakera erkatuz eta bien arteko ezberdintasunak nabarmenduz.

Euskara, katalana, hebraiera...

Suomieraren nondik norakoa aztertuz eginak dira *Bat* aldizkariako *Suomieraren Corpus-plangintza hiztegiaren ikuspegitik* eta *Gatazkak eta akordioak gizarte hizkuntzan: Finlandia* artikulua ere, Andoni Sagarnak eta Kenneth D. McRaek idatzitak.

Aldizkariaren ale honetan beste hainbat gai ere jorratu dituzte, ordea. Paula Kasaresek —Baztango udalen euskara teknikari lanetan dihardu— Nafarroako eskualde horretako biztanleek euskarari buruz duten iritzia aztertu du ikuspegi antropologikoki batetik, eta Jordi Bañaresek, berriz, Europako Batasunean desabantailan dauden hizkuntzak aztertu ditu kuantitatiboki.

Ildo berean, katalanaren ezagutzaren bilakera eta Israelgo estatuko hizkuntza aniztasunaren azterketak —ingelesa eta hebraiera bertan lortzen ari diren nagusitzat aztertuz batez ere— tarte bat dute artikuluan banaren bidez, *Bat* aldizkariaren ale berri honetan.

Bi asteko etenaren ostean, bihar hasiko dira berriro EHUko Udako Ikastaroak

■ Hirietako ura, gatazka politikoen konponbidea eta osagileen etika izango dira, besteak beste, aste honetan hizpide

Erredakzioa / Donostia

ETENALDIA egin dute Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroek abuztuko aurreneko bi asteetan. Gaur berriz hasiko dira, ordea, eta berriro ere milaka ikasle-oren topaleku izango da Donostiako Miramar jauregia. Gaur, esaterako, *Ikerketen diseinua: industriaren esperimintatzea*, *Hirietako ura XXI. gizaldian: arazoak eta konponbideak* eta *Gatazkak, suetenak eta amnistiak mundu klasikoan* ikastaroak hasiko dira. Ostegunean, berriz, *Etika medikoaren erronka berria*. *Ignacio Maria Barriola doktoariaren omenaldia* eta *Finisterretik Britainiara*. *Atlantikoko Arku antzina* ikastaroak hasiko dira.

Ikasle andana

Ikastaroon lehen zatian antolatzaileek espero zuten baino ikasle gehiagok hartu zuten esku. Ekainaren azken egunetan hasi ziren ikastaroak, eta uztaile amaite bitartean 5.000 ikasle jardun zuten jardunaldion gerizpeko ikastaroetan eta Kursaal aretoan egin zen kongresuan —haur hizkuntza aztergai, mundu zabaleko hainbat ikertzaile handiren topagune izan zen—. Horregatik, antolatzaileek balantze baikorra egin zuten egindako lanaren inguruan.

Ordea, ikastaroon zuzendari Ricardo Etxepare ez zen geratu balantze baikor hutsean. Izan ere, ikasle kopuru handiak masifikazioa ekarri zuela nabarmendu zuen, eta ikasle gehienak unibertsitatean diharduten neska-entzuleak direla; gainera, zail bide da esparru espezializatuetan lanean diharduten adituak erakartzea ikastarootara. Eta, neurri handi batean, horixe dute antolatzaileek etorkizuneko xede nagusienetako bat, profesionalak ikasle bihurtzea.